# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia Iruña, 2013ko irailaren 12a 99. ZK.

## A U R K I B I D E A

B SAILA:
**Foru lege proposamenak:**
—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Galdera, Iruñeko espetxean preso dauden pertsonen mantenuari eta elikadurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
—Galdera, bularreko minbiziaren tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Galdera, Nafarroan ondareari buruzko zergan eginiko aldaketen ondoren helbidea aldatu duten pertsona fisiko edo juridikoen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
—Galdera, ondareari buruzko zergan eginiko aldaketen ondoriozko dirusarrera-galerari eta 2013rako aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Galdera, 2012ari dagokion BEZaren doikuntzaren behin betiko likidazioaren zenbatespenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Galdera, "Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa" kontzeptu gisa ordaindu beharreko zenbatekoaren balioespenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, "Amnistia fiskala" aplikatzearen ondorioz bildutako diru kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, ondarearen gaineko zergarako konputagarriak diren askotariko lurzoruen eta higiezinen balioespenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak "25 langile baino gutxiagoko enpresetan kontrataziorako laguntzak eta diru-laguntzak" direla-eta kudeaturiko espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Galdera, generoko indarkeriako kasuen jarraipena egiteko eta haien arrisku-maila baloratzeko sistema informatikoaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

—Galdera, iragarri denez 27 milioi euro biltzeko bidea eman duen “erregularizazio prozesu bereziari” buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
—Galdera, AHTaren finantzaketa dela-eta Estatuak eginiko likidazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
—Galdera, Tafallako hegoaldeko saihesbidea izenekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

**B Saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa.

*LANDA GARAPENEKO, INGURUMENEKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak ondoko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena: “Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean debekatzen duena haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa”. Proposamen hori 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko irailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## IRIZPENA

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak 2013ko irailaren 3an egindako bileran onetsia.

## Foru lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean gas ez-konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa haustura hidraulikoa erabiltzea debekatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun, gasa erauzteko haustura hidraulikoaren teknikak edo frackingak galderak planteatzen ditu, bai osasunaren ikuspuntutik bai ingurumenaren babesaren ikuspuntutik, funtsean, teknika hori erabiliz gero kutsadura eragin litekeelako lurpeko akuiferoetan; izan ere, teknika hori baliatzeko beharrezkoa da produktu toxikoak eta kutsatzaileak injektatzea. Erakunde independente eta zalantzarik gabeko inpartzialtasunekoek duela gutxi eginiko azterlanek agerian jarri dituzte teknika hori baliatzeak sor ditzakeen arriskuak. Horrekin lotuta, 2011ko ekainean, Europako Parlamentuko Ingurumeneko, Osasun Publikoko eta Segurtasuneko Batzordeak txosten bat argitaratu zuen, zeinetan zenbait galdera egiten baitziren haustura hidraulikoaren teknika ikerketarako eta gasa erauzteko teknika gisa erabiltzearen inguruan.

Horregatik guztiagatik, gaur egun gizartean bada kezka gasa erauzteko teknika ez-konbentzional hori abian jartzeak ekar ditzakeen arriskuak direla-eta, eta gizartearen zenbait sektorek uste dute jarduera horrek kalte nabarmenak eragin ditzakeela ingurumenean eta lurpeko akuiferoetan.

Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria da Nafarroako Foru Komunitatearen nortasun-ezaugarrietako bat, bere naturarekin eta paisaia-balioarekin batera. Horren erakusgarri da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren apusturik handiena izatea Nafarroako Ubidea eta milaka hektarea ureztalur bihurtzea, landu ahal izateko.

Lurraldearen okupazio-maila baxua dela-eta, bere urak garbiak dira eta natura kalterik gabe zainduta dago, eta horrek ahalbidetu du nazioko erreferentea izan gaitezen landa-turismoa, ekoturismoa eta birdinga bezalako arloetan.

Gauzak horrela, Nafarroako Foru Komunitatean haustura hidraulikoaren teknika bidezko gas ez-konbentzionalaren erauzketa etengo da egun dauden zalantzak eta alderdi ezezagunak argitzen ez diren bitartean.

Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateak baliatuko ditu alor hauetan dituen eskumenak: lurraldearen antolamendu, hirigintza eta etxebizitzaren arloan; ingurumenaren eta ekosistemen babesaren arloan; osasunaren eta higienearen arloan; prebentzioaren eta osasuna sustatze eta berreskuratzearen arloan; eta industriaren eta meategi- eta energia-araubidearen arloan.

**1. artikulua.** Hidrokarburo ez-konbentzionalak esploratzeko eta ustiatzeko debekua.

a) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezartzen denez, Nafarroak eskumenak ditu ingurumenaren babesean nahiz jarduera ekonomikoaren plangintzan eta garapen ekonomikoaren sustapenean Nafarroaren barnean. Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean debekatu egiten da hidrokarburo ez-konbentzionalak esploratzea eta ustiatzea haustura hidraulikoaren teknika edo frackinga erabilita.

b) Honakoak hartuko dira hidrokarburo ez-konbentzionaltzat: harri amaren harrapatuak dauden hidrokarburo likido nahiz gaseosoak, harri horren iragazkortasuna milidarcy 1 baino gutxiagokoa denean, bai eta ikatz- edo harrikatz-zainetan harrapatuta dauden hidrokarburo gaseosoak, baldin eta horiek ateratzeko edo askatzeko beharrezkoa balitz gehigarri kimikodunak dituen presiopeko ur-kantitate handiak injektatzea".

**2. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko agintari eta funtzionario publikoek zainduko dute foru lege honetan ezarritakoa errespetatu eta betetzen dela eta, beren eskumenen esparruan, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte lege honetan xedaturikoaren aurka egiten diren jarduerak geldiarazteko, bai eta eraldatutako egoera jatorrizkora lehengoratzeko ere.

**3. artikulua.** Foru lege hau indarrean sartzen denetik, 1. artikuluan aipatu teknikaren erabilera, Foru Komunitateko lurraldean debekatutakoa den lurzoru-erabilera bat dakarrenez –foru lege honen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera–, hirigintzako arau-haustetzat hartuko da, Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Lurzoruaren Hirigintza-araubideari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

**Xedapen iragankor bakarra.** Foru lege honetan xedaturikoa aplikatzekoa izanen zaie 1. artikuluan debekaturiko jarduera gauzatzeko baimenei edo horretarako gaitzen duen beste edozein tituluri, bai jada emanda daudenei edo izapidetzen ari direnei, bai legea indarrean sartu eta gero aurkezten diren eskaerei ere.

**Azken xedapen bakarra.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**F saila:**
**GALDERAK**

## Galdera, Iruñeko espetxean preso dauden pertsonen mantenuari eta elikadurari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Iruñeko espetxean preso dauden pertsonen mantenuari eta elikadurari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak Iruñeko espetxean preso dauden pertsonen mantenuari eta elikadurari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-13/PES-00016), hau erantzun du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak historian zehar eta tradizioz parte hartu izan du Iruñeko espetxeari eusteko gastuetan, eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin elkarlanean hainbat arlo jorratu ditu, esate baterako espetxeratuen prestakuntza eta heziketa edo haien gizarteratzea, eta lagundu egin du langileria-gastuak finantzatzen, gizarte zerbitzuak ematen eta espetxeratuen bizi baldintzak hobetzen, elikagaien horniduran eta espetxea zaharberritu eta mantentzeko inbertsioetan, espetxeratutako nafarren kopuruaren araberako proportzioan.

Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorretan bazen kontusail bat “Espetxea mantentzeko gastuak” ordaintzeko, eta 200.000 euro jaso zituen. Baina 2013rako luzatutako Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorretan ez da dirurik jarri xede horretarako eta Estatuak hartu beharko ditu bere gain orain arte Nafarroako Gobernuaren kargura ematen ziren prestazioak.

Dena den, Estatuko Administrazio Orokorrari dagozkio Iruñeko espetxeko baliabideen administrazioa eta kudeaketa materiala, espetxeratuen elikadura eta nutrizioa barne.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

# Galdera, bularreko minbiziaren tratamenduari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bularreko minbiziaren tratamenduari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera hau egin du, idatziz erantzuteko: “1.- Nafarroako Gobernuak noiz bateratuko ditu egun dauden bi unitateak (Bideko Ama Birjina Ospitalea eta Nafarroako Ospitalea)? 2.- Zerbitzua bateratuta ez dagoenez, bi itxaronzerrenda ezberdin al daude ebakuntzetarako eta tratamenduetarako? 3.- Zerbitzua bateratuta ez dagoenez, bi jarduketa- eta arreta-protokolo ezberdin al daude? 4.- Kasua bada, zer ezberdintasun daude, itxarote-egunei dagokienez, bi zerrenden artean?” (PES-00017). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

1 Nafarroako Gobernuak noiz bateratuko ditu egun dauden bi unitateak (Bideko Ama Birjina Ospitalea eta Nafarroako Ospitalea)?

Otsailaren 18ko 20/2011 Foru Aginduak, Osasuneko kontseilariak emanak, "Nafarroako Ospitaleguneko Kirurgiako Arlo Klinikoaren antolaketa eta egitura apirilaren 12ko 19/2010 Foru Dekretura moldatzen ditu. Foru dekretu horren bidez Nafarroako Ospitalegunea sortu eta haren zuzendaritza egitura ezarri zen" (2011-02-28ko NAO).

Foru aginduaren 7. artikuluan ("Unitate klinikoak") Nafarroako Ospitaleguneko Kirurgiako Arlo Klinikoa garatu da, honako unitate kliniko hauetan egituratuta, hango zuzendariaren menpe:

a) Kirurgia Esofagogastrikoaren Unitate Klinikoa.

b) Kirurgia Kolorrektalaren eta Proktologiaren Unitate Klinikoa.

c) Gibel, Besikula eta Pankreako Kirurgiaren Unitate Klinikoa.

d) Abdomeneko Paretaren Unitate Klinikoa.

e) Bularreko Kirurgiaren Unitate Klinikoa.

f) Kirurgia Endokrinoaren Unitate Klinikoa.

g) Larrialdietako Kirurgiaren Unitate Klinikoa.

Foru aginduaren 8. artikuluko ("Unitate klinikoen definizioa eta eginkizunak") 1. idatz-zatiak hauxe dio: "...Unitate klinikoen jardueraren printzipio nagusietako bat talde-lana izanen da. Kalitateko laguntza bermatzea bilatuko dute, espezializazioan eta jarduera-bolumen nahikoa izatean oinarrituta".

Ondokoa xedatzen da 2. idatz-zatian "...Kirurgiako Arlo Klinikoan lanean ari diren fakultatiboak, organikoki arlo horri atxikita badaude ere, eginkizunen ondorioetarako Arloaren egituraren barreneko edozein unitate klinikori atxiki ahal zaizkio, eta dagozkien prozesu klinikoen ebazpena beren gain hartu beharko dute kontuan hartu gabe prozesu horiek zein laguntza maila edo zentrotan garatu diren".

2. Zerbitzua bateratuta ez dagoenez, bi itxaronzerrenda ezberdin al daude ebakuntzetarako eta tratamenduetarako?

Zerbitzua bateratuta dago eta unitatea ere bai. Beraz, ez daude bi itxaronzerrenda ezberdin.

3. Zerbitzua bateratuta ez dagoenez, bi jarduketa- eta arreta-protokolo ezberdin al daude?

Ez daude bi jarduketa-protokolo, unitate klinikoa bakarra delako. Hori bai, bularreko tumoreetarako bi batzorde zeuden, eta horrek eragin zezakeen modu ezberdinetan bideratzea gaixoen kirurgia ondoko jarraipena eta tratamendua. Duela aste batzuk bi batzordeak batu egin dira, ikuspegi horiek homogeneizatze aldera.

Laster aztertuko da unitatearen bateratze fisiko eta funtzionalerako aukera.

4. Kasua bada, zer ezberdintasun daude, itxarote-egunei dagokienez, bi zerrenden artean?

Ez dago itxaronzerrenda bana. Kirurgia Unitateak planifikaturik eta erabilgarri dauden ebakuntza-geletan egiten zaie ebakuntza gaixoei bai NOG-An bai NOG-Bn.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

# Galdera, Nafarroan ondareari buruzko zergan eginiko aldaketen ondoren helbidea aldatu duten pertsona fisiko edo juridikoen kopuruari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan ondareari buruzko zergan eginiko aldaketen ondoren helbidea aldatu duten pertsona fisiko edo juridikoen kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak galdetu du, idatziz erantzun dadin, Nafarroan ondarearen gaineko zergan eginiko aldaketen ondoren “zenbat pertsona fisikok edo juridikok aldatu duten beren helbide fiskala beste erkidego batzuetara, bereziki Madrilekora, non ez baitago halako zergarik” (8-13/PES-0011). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. Ondarearen gaineko zerga tributu pertsonala da, pertsona fisikoen ondarea kargatzen duena.

Beraz, pertsona juridikoak ez daude inola ere behartuta ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztera, ez direlako zerga horren subjektu pasiboak.

2. Nafarroan ondarearen gaineko zerga delaeta aurkeztu diren azken aitorpenak 2011ko zergaldikoak dira. Aitorpen horiek aurkezteko borondatezko epea 2012ko apirilaren 18an hasi eta ekainaren 22an amaitu zen.

Beraz, galderan aipatu diren ondarearen gaineko zergari buruzko araudiaren aldaketa horiek, nonbait, abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legeak, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoak, egindako aldaketak dira. Foru lege hori 2011ko 256. NAOan argitaratu zen, abenduaren 30ekoan, eta 2007ko zergaldiko araudi indardunean aldaketa hauek egin zituen, besteak beste:

– Kendu egin zuen zergaren kuota osoaren ehuneko 100eko hobaria, 2008. urtetik aplikatzen zena.

– Ohiko etxebizitzarengatiko salbuespenari 300.000 euroko muga ezarri zion.

– Salbuetsita dagoen gutxienekoagatik 700.000 euroko murrizketa ezarri zuen.

– Tributu-kuota ordaindu beharrekoa ateratzen zaien subjektu pasiboei edota 2.000.000 eurotik gorako ondasun edo eskubideen jabe direnei ezarri zien aitorpena nahitaez aurkeztu beharra.

Hau da, ondarearen gaineko zergari buruzko arauen aldaketen ikuspuntutik, zerga horren aitortzaileen azterketan konparazioa egin behar da 2007ko zergaldiko aitortzaileen eta 2011ko zergaldiko aitortzaileen artean.

Azterketa horretan kontuan hartu behar dira, lehen-lehenik, 2007ko zergaldian ondarearen gaineko zergaren aitorpena egin zutenetatik, 2011ko zergaldian inola ere ezin direnak subjektu pasibo izan.

Hala, ondarearen gaineko zergaren aitorpenen erregistroetan eta Nafarroako Zerga Ogasunaren datu-basean dagoen informazioaren arabera, 2007ko zergaldian ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztu zutenetatik 1.145 hil egin dira edo bizilekuz aldatu dira eta gertaera horrek ondorioak sortu ditu 2011ko zergaldian. Bereziki, 2007ko zergaldian ondarearen gaineko zergaren aitorpena aurkeztu zutenetatik 101ek 2011. urtean ez dute beren helbidea Nafarroan, eta aitortzaile horietatik 42k Madrilen dute bizilekua.

Esan behar da, azkenik, Nafarroako Zerga Ogasunak ezin duela zehaztu, aurreko puntuetan adierazitakoaz harago, Nafarroan ondarearen gaineko zergan egindako aldaketen ondorioz zenbat pertsonak aldatu duten beren helbide fiskala. Izan ere, helbide aldaketen arrazoiak ez daude erregistraturik, ez dagoelako aldaketaren arrazoia (arrazoi pertsonalak, lana...) adierazi beharrik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, ondareari buruzko zergan eginiko aldaketen ondoriozko dirusarrera-galerari eta 2013rako aurreikuspenei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ondareari buruzko zergan eginiko aldaketen ondoriozko dirusarrera-galerari eta 2013rako aurreikuspenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak ondarearen gaineko zergan eginiko aldaketen ondoriozko dirusarrera-galerari eta 2013rako aurreikuspenei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-13/PES-0012), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Galderaren idazkiak honela dio: “Ondarearen gaineko zergari dagokionez Nafarroan egindako aldaketak direla-eta, zer galera izan du Foru Ogasunak orain arte diru-sarreretan, eta zer aurreikuspen darabil 2013rako?”

Horren haritik ohar hauek egin daitezke:

1. Nafarroan ondarearen gaineko zerga dela-eta aurkeztu diren azken aitorpenak 2011ko zergaldikoak dira. Aitorpen horiek aurkezteko borondatezko epea 2012ko apirilaren 18an hasi eta ekainaren 22an amaitu zen.

Beraz, galderan aipatzen diren ondarearen gaineko zergari buruzko araudiaren aldaketa horiek, nonbait, abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legeak, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoak, egindako aldaketak dira. Foru lege hori 2011ko 256. NAOan argitaratu zen, abenduaren 30ekoan, eta 2007ko zergaldiko araudi indardunean aldaketa hauek egin zituen, besteak beste:

– Kendu egin zuen zergaren kuota osoaren ehuneko 100eko hobaria, 2008. urtetik aplikatzen zena.

– Ohiko etxebizitzarengatiko salbuespenari 300.000 euroko muga ezarri zion.

– Salbuetsita dagoen gutxienekoagatik 700.000 euroko murrizketa ezarri zuen.

– Tributu-kuota ordaindu beharrekoa ateratzen zaien subjektu pasiboei edota 2.000.000 eurotik gorako ondasun edo eskubideen jabe direnei ezarri zien aitorpena nahitaez aurkeztu beharra.

Hau da, ondarearen gaineko zergari buruzko arauen aldaketek ondarearen gaineko zergaren bidezko diru-sarreren bilketan izan duten eragina aztertzeko, konparazioa egin behar da 2007ko zergaldian ateratako kuoten eta 2011ko zergaldian ateratako kuoten artean.

Hala, ondarearen gaineko zergen aitorpenen erregistroetan dagoen informazioaren arabera, 2007ko zergaldiko ondarearen gaineko zergaren aitorpenetako 85 laukian jarri ziren sartu beharreko kuoten eta 2011ko zergaldiko ondarearen gaineko zergaren aitorpenetan jarri ziren sartu beharreko kuoten arteko kendura, guztira, 29.604.936,75 euro da.

Guztizko kendura horretan, ordea, ez dago zehazturik 2011ko zergaldiko ondarearen gaineko zergaren bidez diru-sarrera gutxiago bildu izana ondarearen gaineko zergari buruzko araudian egindako aldaketen ondorio izan den edo bestelako arrazoiak izan diren, adibidez zergaren subjektu pasibo diren aitortzaileen ondarearen osaeran edo balorazioan izandako aldaketa.

2. Bigarrenik, azpimarratu behar da Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen abenduaren 26ko 23/2012 Foru Legeak (2012ko 253. NAOan argitaratua, abenduaren 31koan; okerren zuzenketa 2013ko 4. NAOan, urtarrilaren 8koan) honako aldaketa hauek egin dituela 2011ko zergaldiko araudi indardunean, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak sortzeko:

– Ohiko etxebizitzarengatiko salbuespenari 250.000 euroko muga ezarri dio.

– Salbuetsita dagoen gutxienekoagatik 311.023,76 euroko murrizketa ezarri du.

– Tributu-kuota ordaindu beharrekoa ateratzen zaien subjektu pasiboei edota 1.000.000 eurotik gorako ondasun edo eskubideen jabe direnei ezarri die aitorpena nahitaez aurkeztu beharra.

Beraz, 2012ko zergaldia dela-eta 2013. urtean aurkeztuko diren ondarearen gaineko zergaren

aitorpenen bidez dirua biltzeko aurreikuspenei dagokienez, kontuan hartzekoak dira aldaketa horiek, eta 2011ko zergaldiko ondarearen gaineko zergaren bidezko diru-bilketan izanen duten eragina kalkula daiteke: 22.917.870 euro, betiere 2007. urteko ondarearen gaineko zergaren aitortzaile guztiek 2012ko zergaldian ere zerga horren aitorpena egin beharko balute eta haien ondarearen osaera eta balorazioa lehengoak balira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, 2012ari dagokion BEZaren doikuntzaren behin betiko likidazioaren zenbatespenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2012ari dagokion BEZaren doikuntzaren behin betiko likidazioaren zenbatespenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak Nafarroako 2013ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzeko kontuan hartu zen BEZaren doikuntzari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-13/PES-13), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

2012ko abuztuan diru-sarrerei buruzko aurreikuspenak egin ziren, Nafarroako 2013ko Aurrekontu Orokorretako gastuen gehieneko zenbatekoa onesteko. Haien artean dago 2012. urteko BEZaren doikuntzaren erregularizazioa, 120,6 milioi eurokoa.

Zenbatespen horretan oinarritzat hartu ziren Nafarroako zuzeneko diru-bilketaren bidezko diru-sarrerei buruzko itxierarako aurreikuspenak, Nafarroako Foru Ogasunak abuztuan bertan egindakoak, eta Estatuko 2012rako aurrekontu orokorren proiektuan Estatuaren zuzeneko diru-bilketa betetzeari buruz jaso zen aurreikuspena, eta kontuan hartu zen, gainera, Ministerioak iragarri zuela BEZaren bidez diru gehiago bilduko zela, irailaren 1etik aurrera tarifa igota. Hala ere, Hitzarmen Ekonomikoaren 66.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bi administrazioek elkarrekin adostu beharko dituzte erregularizazio horren zenbatekoa eta likidazioa. Koordinazio Batzordeak 2012ko otsailaren 16an BEZaren doikuntza gauzatzeko ezarri zuen metodoaren arabera, Nafarroako eta Estatuko benetako diru-bilketei buruzko datuak, kalkuluan erabiliko direnak, hurrenez hurren Nafarroako Kontu-hartzailetzak eta Estatuko Kontu-hartzailetza Nagusiak ziurtatu behar dituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, “Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa” kontzeptu gisa ordaindu beharreko zenbatekoaren balioespenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa” kontzeptu gisa ordaindu beharreko zenbatekoaren balioespenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak Hitzarmenaren ondoriozko diru ekarpen gisa Nafarroak Estatuari 2012an eta 2013an ordaindu beharreko zenbatekoen balioespenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-13/PES-14), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Galderan, “'Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa' kontzeptu gisa” diozunean, Nafarroak ordaindu beharreko diru ekarpenaz ari zarela uste dugu.

Eskura dagoen azken zenbatespena kontuan izanik, hots, Ogasun Ministerioak urrian argitaratutako Estatuko 2012ko Aurrekontu Orokorretan itxierari begira egindako aurreikuspenen arabera, 2012ko ekarpena dela-eta Nafarroak ordaindu beharreko likidazioa 17,3 milioi eurokoa izanen da.

Hitzarmen Ekonomikoaren 60.1 artikuluan aipatzen den eguneratze indizea kalkulatzeko, ordea, Estatuko Administrazio Orokorreko Kontuhartzailetza Nagusiak ziurtatzen dituen 2012ko diru-bilketa likidoaren zenbatekoak erabiliko dira. Bi administrazioek adostu behar dituzte behin betiko ekarpena eta haren likidazioa.

Nafarroak 2013. urtean ordaindu beharreko diru ekarpenaren 551,1 milioi euroko zenbatekoa jaso zen Nafarroako 2013rako Aurrekontu Orokorretan.

Aurrean adierazi denez, bi administrazioek elkarrekin adostu behar dituzte bai 2013ko behinbehineko ekarpena bai 2012ko behin betiko ekarpenaren likidazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, "Amnistia fiskala" aplikatzearen ondorioz bildutako diru kopuruari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, "Amnistia fiskala" aplikatzearen ondorioz bildutako diru kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 2012ko lehen hilabeteetan Alderdi Popularrak sustatutako "amnistia fiskala" aplikatzearen ondorioz Nafarroako Gobernuak bildutako diru kopuruari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-0018), hau erantzun du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Zure galderaren gaia 12ko 10/2012 Foru Legean ezarritako pizgarriak direla ulertu behar da, tributudunek beren zerga betebeharrak egunean jartzea xede duten horiek.

Ez da, beraz, "amnistia fiskal" bat, baizik eta berandutza-interesen eta errekarguen aldi baterako beherapena, borondatez egiten diren zerga-erregularizazioetarako, zeinak jada jasorik baitaude, modu orokor eta iraunkorrean, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 52.3 artikuluan. Alegia, pizgarria eman nahi da erregularizazioak egin daitezen Zerga Administrazioak aldez aurretik errekerimendurik egin gabe. Nabarmen handitu dira, aldiz, 10/2012 Foru Legeak indarra hartuz geroztik egindako arau-hauste fiskal larriak zigortzeko isunak.

Hona emaitza ekonomikoak:

| | **Aitorpenen kopurua** | **Aitortutako kuota** |
|---|---|---|
| PFEZa | 771 | 5.721.807,72 |
| Ondarearen g. z. | 132 | 3.505.606,55 |
| BEZa | 1169 | 6.357.844,57 |
| SZ | 32 | 971.625,55 |
| Oinordetzen g. z. | 47 | 5.849.115,03 |
| OEEJDZ | 634 | 780.636,63 |
| Atxikipenak | 1376 | 1.758.077,90 |
| Zatikatzeak | 210 | 493.655,39 |
| Alkoholaren g. z. | 2 | 21.719,35 |
| Elektrizitatearen g. z. | 34 | 20.708,02 |
| Aseguru primen g. z. | 258 | 1.634.138,48 |
| EEEZ | 86 | 190.547,26 |
| | **4751** | **27.305.482,45** |

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, ondarearen gaineko zergarako konputagarriak diren askotariko lurzoruen eta higiezinen balioespenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ondarearen gaineko zergarako konputagarriak diren askotariko lurzoruen eta higiezinen balioespenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak ondarearen gaineko zergarako konputagarriak diren askotariko lurzoruen eta higiezinen balioespenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-13/PES-0019), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1.- Zein izanen da herritarrentzako erreferentziako balioa, ondare-zenbatekoak ezartzerakoan?

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 10. artikuluak erantzuten dio galdera horri.

Manu horrek dioenez, ondasun higiezinak baloratzeko erregela hauei jarraikiko zaie:

1. Ondoko hiru balioen arteko handiena hartuko da:

*a) Hirilur Kontribuzioaren, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Jardueren gaineko Kontribuzioaren edo Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ondorioetarako duten katastro-balioa.*

*b) Eroste prezioa, kontraprestazioa edo balioa.*

*c) Edozein zergaren ondorioetarako, Administrazioak frogatutako balioa.*

*(...)*

2.- Katastroko balioak baldin badira erreferentziakoak, zer neurri zuzentzaile ezarriko ditu Nafarroako Gobernuak, udaletan udal katastroa gaurkotzeko datak bat ez etortzeak herritarrei ekar liezaiekeen bereizkeria arintze aldera?

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 11. artikuluan ezarrita dagoenez, betiere foru lege baten bidez arautu behar da, beste gai batzuen artean, zerga-oinarriaren zehaztapena.

Beraz, Nafarroako Parlamentuaren eskumena da neurri zuzentzaileak ezartzea, halakorik behar balitz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

# Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak “25 langile baino gutxiagoko enpresetan kontratazioko laguntzak eta diru-laguntzak” direla-eta kudeaturiko espedienteei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak “25 langile baino gutxiagoko enpresetan kontratazioko laguntzak eta diru-laguntzak” direla-eta kudeaturiko espedienteei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dadin, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak “Enplegu Plana. PO, FSE enplegurako zailtasun handiagoak dituzten kolektiboen laneratze programak” izeneko kontusailaren kargura 25 langile baino gutxiagoko enpresei kontratazioko emandako laguntza eta diru-laguntzei buruz (8-13/PES-20). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

1. Kontusail horren kargura guztira betetako portzentajea eta zenbatekoa.

Deialdia ebazteko betetako zenbatekoa, guztira, 1.498.996,76 euro da.

2. Diru-laguntza horiek 2012ko ekitaldiaren kargura lortu dituzten enpresen zerrenda, horietako bakoitzak jasotako zenbatekoa zehaztuta.

Zerrenda I. eranskinean dago.

3. Diru-laguntza hori jasotzeko moduan egon arren behar adinako kredituri ez egoteagatik diru-laguntzarik lortu ez duten enpresen zerrenda.

Zerrenda II. eranskinean dago.

4. Baztertutako enpresa horiei, diru-laguntza jasotzeko modua izan arren, transferitu ez zaizkien diru-laguntzen zenbatekoa.

Informazio hori ere II. eranskinean dago.

5. Diru-laguntza hori jasotzeko moduan zeuden enpresei diru-laguntza emateko eta diru-laguntza hori jasotzeko moduan ere bazeuden beste batzuei ukatzeko baliatutako irizpideen gaineko xehetasunak.

Diru-laguntza hori jasotzeko moduan zeuden enpresei diru-laguntza emateko eta diru-laguntza hori jasotzeko moduan ere bazeuden beste batzuei ukatzeko baliatutako irizpideei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikuluan ezarritako banakako ebaluazioaren araubidea erabili da deialdian. Ebazteko sistema, beraz, artikulu horretan adierazitakoa izan da: espedienteak aurkeztu ahala tramitatzen eta ebazten dira, aurrekontuan horretarako kreditua dagoen bitartean. Hala, espedienteak erregistroan sartu diren hurrenkera berean ebatzi dira, eta deialdiko baldintzak betetzen zituzten enpresei diru-laguntza eman zaie aurrekontuko baliabideen mugaraino.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria, Lourdes Goicoechea Zubelzu

I. ERANSKINA. 25 LANGILE BAINO GUTXIAGOKO ENPRESAK KONTRATATZEAGATIK 2012an EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

| Entitate eskatzailea | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|
| PROMOCIONES JAVIER Y MARIMAR, S.L. | 3.800,00 |
| MARÍA ISABEL ARAMENDIA ARRATIBEL | 3.600,00 |
| OLZATEGI S.L | 3.800,00 |
| FRANCISCO IRIARTE IRIGOYEN | 4.800,00 |
| MONREAL BELZUNCE S.L | 2.400,00 |
| ANTONIO MARTÍNEZ LIZASO | 4.800,00 |
| SERVICIOS INTEGRALES LA MILAGROSA 2, S.L | 3.800,00 |
| NETBIT SERVICIOS INTEGRALES S.L | 4.800,00 |
| DALYS DISTRIBUCIÓN ARTÍCULOS LIMPIEZA Y SERVICIOS S.L | 4.800,00 |
| MARÍA CONSUELO ROMEO BARASOAIN | 3.988,80 |
| HOTEL VILLA CLEMENTINA S.L. | 3.800,00 |
| JUAN CRUZ EDURZA LÓPEZ | 2.400,00 |
| CINDUGRANIT, S.L | 4.800,00 |
| LUIS JAVIER APEZETXEA ZABALETA | 4.800,00 |
| CONSERVAS DANTZA SA | 3.800,00 |
| ALMACENAJE CRISSER SL | 4.800,00 |
| M.ELENA SANZ GUILLÉN "LAVANDA" | 4.800,00 |
| MARÍA OROFINO IBAÑEZ | 2.472,00 |
| GOÑI ISTURIZ, MARTÍN | 3.800,00 |
| PUNTO MÓVIL LAS CLARAS S.L. | 3.800,00 |
| XABIER ZAMARRIPA IMAZ | 3.800,00 |
| DESGUACES DAVID LARRONDO.S.L. | 3.800,00 |
| FÉLIX MILAGRO MIRAMÓN | 3.800,00 |
| NASERCA NAVARRA S.L. | 4.800,00 |
| TRIVINCO INTERNATIONAL S.L. | 4.800,00 |
| ALONSO VELASCO, NURIA Y BARBARIN ARZOZ MARÍA PUY | 4.800,00 |
| CHINA IMPERIAL, S.L. | 3.500,00 |
| MÁSTER NAVARRA AUTOMATISMOS, S.L. | 4.800,00 |
| CHUECA VISANZAY, CARMELO Y MARTÍNEZ ARBIZU, BELEN | 2.640,00 |
| NODITEL 97, S.L. | 3.800,00 |
| AH USENERGYA, S.L | 4.800,00 |
| AGROJARDIN-ESTELLA, S.L | 4.800,00 |
| LÓPEZ HOLGADO, ALVARO | 4.800,00 |
| TEKASHY ESTILISTAS S.L | 4.800,00 |
| TEKASHY ESTILISTAS S.L | 4.800,00 |
| TEKASHY ESTIISTAS S.L. | 4.800,00 |
| MARÍA JOSÉ ABIOL SKOGLER | 3.600,00 |
| CEMAN CENTRAL DE SERVICIOS ADMINISTRATIVOS S.L | 4.800,00 |
| SUPERMERCADO GORRITI S.L | 4.800,00 |
| OBRAS Y SERVICIOS KODE, SL | 4.800,00 |
| ANA KARINA ESCOBAR GATTI | 4.200,00 |
| CRISTINA GARCÍA PLAZA | 2.400,00 |
| JUAN CAMILO BAEZ CARDONA | 3.800,00 |
| MARÍA CECILIA SIMÓN RONDÓN | 2.400,00 |
| ABEDUL PRODUCTOS FARMACEÚTICOS, S.L | 4.800,00 |
| JULCAR INMUEBLES S.A | 4.800,00 |
| TALLERES LARRAUN S.L | 2.400,00 |
| REMÍREZ ALFARO YOANA | 4.800,00 |
| IÑAKI PERALTA GÓMARA | 4.800,00 |
| SOLA JIMÉNEZ, ÁNGEL | 4.800,00 |
| STANDS NAVARRA, S.L. | 4.800,00 |
| STANDS NAVARRA, SL | 2.400,00 |
| STANDS NAVARRA, S.L | 4.800,00 |
| LABORATORIOS OJER PHARMA, S.L | 4.800,00 |

| Entitate eskatzailea | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|
| GRÚAS LARRAUN, S.L. | 2.400,00 |
| TRANSPORTES INTERPIRINEOS, S.A | 3.800,00 |
| ROS MERY URIBE ORTIZ | 3.800,00 |
| ITURLAN 2009 S.L.U | 4.800,00 |
| MARTA FERNÁNDEZ EJEA | 4.800,00 |
| ALIMENTOS PROTEICOS TEXTURIZADOS Y COMPLEMENTOS NUTRICIONALES S.L. | 3.800,00 |
| KRUTXA, S.L. | 2.400,00 |
| CALEFACCIONES ALUFAR S.L | 4.800,00 |
| PINTURAS LANA 3, S.L | 4.800,00 |
| LTN GESTIÓN CARGO S.L.U | 4.200,00 |
| LTN GESTIÓN CARGO, S.L.U | 2.400,00 |
| ACYSE ASESORES, S.L | 4.800,00 |
| ASTARRIAGA CORRES MI Y FRAILE MOR JM | 3.800,00 |
| MERKECARTUCHOS S.L | 4.800,00 |
| JESÚS DE MIGUEL MAYO | 3.500,00 |
| DELGADO HERVÁS M FUENSANTA Y MARTÍNEZ TORRANO MIKEL | 3.800,00 |
| TRATAMIENTOS HIGIÉNICOS ALBA S.L | 3.800,00 |
| POLIEGO, SL | 4.800,00 |
| NUDOS Y TEXTURAS DE LA MADERA SL | 4.800,00 |
| ALTREN PAMPLONA 2012,S.L | 3.800,00 |
| PROCERVE17, S.L | 3.800,00 |
| ENTEL INGENIERIA, S.L | 4.800,00 |
| MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ IZCO | 2.400,00 |
| SANTA ANA BAZTAFER S.L | 2.400,00 |
| CARLOS IRISARRI URROZ | 4.800,00 |
| COMUNIDAD DE REGANTES NIII RIEGOS BARDENAS REALES | 4.800,00 |
| S.I AMATRIA Y FLOR SENAR | 4.800,00 |
| COMERCIAL DEL NORTE GRUPO SEIS , S.L.L | 4.800,00 |
| ALTREN PAMPLONA 2012, SL | 3.800,00 |
| MULTITIENDAS DON POLICARPO | 2.520,00 |
| AUTOSERVICIO PLAZA DE LA CRUZ, S.L | 2.400,00 |
| LOREM SOLUTIONS SL | 3.800,00 |
| GAZTANDEGI DORREA SA | 4.800,00 |
| PROMOCIONES JAVIER Y MARIMAR SL | 3.800,00 |
| DIGIZEL NAVARRA S.L | 4.800,00 |
| HERRAMIENTA Y UTILLAJE DE PRECISIÓN, S.L. | 3.840,00 |
| LA MAGDALENA Y SU HUERTA, S.L. | 4.800,00 |
| GRANJA ESCUELA GURE SUSTRAIAK SOC.COOP | 3.800,00 |
| GRANJA ESCUELA GURE SUSTRAIAK SOC. COOP. | 4.800,00 |
| JOSMON 2012 SL | 3.800,00 |
| ARETE ACTIVA SL | 4.800,00 |
| GEISER PHARMA , S.L | 4.800,00 |
| SAGARDIKO EDARIAK S.L | 4.800,00 |
| HOTEL INTXAURDIA | 3.800,00 |
| GOLDWYNS, S.L | 4.800,00 |
| DOBLASOUND, S.L | 3.800,00 |
| DOBLASOUND, S.L | 3.800,00 |
| SALCEDO DE PRADO PABLO JOAQUÍN | 4.800,00 |
| TRANSPORTES GPM 2005,SL | 4.800,00 |
| ASOCIACIÓN LAKUNTZKO-PERTZA | 4.800,00 |
| VILLANUEVA OROZCO JUAN Y VILLANUEVA VICENTE ION | 3.800,00 |
| AUTOSERVICIOS JUNCAL, S.L. | 4.560,00 |
| LAUMON PELUQUERIA 7, S.L | 3.800,00 |
| LAUMON PELUQUERIA 7,S.L. | 3.800,00 |
| GURE URTATS ADUR, S.L. | 413,60 |
| GURE URTATS ADUR, S.L | 1.074,50 |

| Entitate eskatzailea | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|
| ARANZAZU MARTÍNEZ ALONSO | 4.080,00 |
| ERDOZAIN LÓPEZ, MARÍA FÁTIMA | 3.800,00 |
| JOSÉ GABRIEL JURÍO IBÁÑEZ | 4.800,00 |
| SERVICIOS FORESTALES DE DIOS, S.L.U | 3.800,00 |
| LA MAGDALENA Y SU HUERTA, S.L. | 4.800,00 |
| PARAFRES ALLI, S.L. | 4.800,00 |
| LA MAGDALENA Y SU HUERTA, S.L. | 4.800,00 |
| ARIZTIA MENDIBURU JOAQUÍN Y SARASA MONREAL FCO. JAVIER | 4.800,00 |
| IRUÑA TECNOLOGÍAS DE AUTOMATIZACIÓN, S.L. | 4.800,00 |
| VALENTÍN GARÍN, S.L. | 4.800,00 |
| GRÁFICAS OLGAR S.L. | 4.800,00 |
| FERRETERÍA EL ARCA DE NOÉ S.L. | 4.800,00 |
| JOSÉ LORENTE PRAT | 3.240,00 |
| MACASINA, S.L. | 2.400,00 |
| MACASINA, S.L. | 2.400,00 |
| MACASINA, S.L. | 3.600,00 |
| SHANAE SERVICIOS GERIÁTRICOS S.L.U. | 3.800,00 |
| AUTOMÁTICOS LUNA SL | 3.800,00 |
| YOLANDA MURUGARREN SUESCUN | 4.800,00 |
| JOSÉ JAVIER ITURRI URRUTIA | 4.800,00 |
| CAFÉ NIZA 2005, SL | 4.800,00 |
| VISIONA BD NAVARRA SLU | 4.800,00 |
| GEISER PHARMA SL | 4.800,00 |
| SOMOS SERVICIOS ATENCIONALES SLL | 295,89 |
| SOMOS SERVICIOS ATENCIONALES SLL | 2.400,00 |
| ELARA INGENIEROS SL | 4.800,00 |
| AIKIDER SL | 4.800,00 |
| LA RESCALTA S.L. | 4.800,00 |
| Mª SAGRARIO PAJARES AZPIROZ | 3.800,00 |
| AURELIO MARAURI URROZ | 3.000,00 |
| NAVADIM  PAMPLONA, S.L. | 3.800,00 |
| NAVADIM  PAMPLONA, S.L. | 3.800,00 |
| NAVADIM PAMPLONA S.L. | 3.800,00 |
| ASESORIA GLOBAL Y CONSULTORIA INTEGRAL | 3.800,00 |
| ALEJAMAR ESTÉTICA S.L. | 4.800,00 |
| RAIZ 2000, S.L.U | 3.600,00 |
| JOSU TAMAYO ORBEGOZO | 2.400,00 |
| BERDIN SERVICIOS ALIMENTARIOS, S.L. | 4.800,00 |
| EBRODUERO RESTAURACIÓN DE TUBERÍAS, S.L. | 4.800,00 |
| SAYA HOSTELERÍA, S.L. | 2.520,00 |
| AUTOMATIZACIONES SIMAC, S.L. | 4.800,00 |
| ATENEA 44, S.L. | 3.800,00 |
| ALFREDO EZPELETA BUSTO | 2.400,00 |
| INMACULADA ALVÁREZ DOMÍNGUEZ | 3.800,00 |
| INMACUALDA ALVÁREZ DOMÍNGUEZ | 3.800,00 |
| MARÍA ASUNCIÓN PÉREZ ARDANAZ | 2.524,80 |
| DOBLASOUND, S.L. | 4.800,00 |
| NAVARRA WEB MARKETING PUBLICIDAD, S.L. | 3.000,00 |
| HERMANOS MORENO ARAMENDIA SL | 3.360,00 |
| PATRICIA SANCHO CORTES | 4.800,00 |
| UHLSPORT IBERICA 2006, S.A. | 4.800,00 |
| Mª PILAR RICO GUILLO (RG PELUQUEROS) | 3.800,00 |
| MARÍA ISABEL LIZARAZU DULAC | 3.800,00 |
| LOS ARCOS & DEPRIT, S.L. | 4.800,00 |
| PRODUCTOS BURGOSANO, S.L. | 4.800,00 |
| CONGRESOS NAVARRA, S.L. | 4.420,80 |
| PULSNAVARRA, S.L. | 4.800,00 |

| Entitate eskatzailea | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|
| JUAN LUIS ZARATIEGUI LUZURIAGA | 4.800,00 |
| WEHL & PARTNER IBERICA RAPID PROTOTYPING SL | 4.800,00 |
| ATZERIBAR SL | 3.800,00 |
| FERNANDO RIQUELME ARANEDA | 390,14 |
| ALFAMIL, S.A | 3.800,00 |
| BASMAT MATTING SYSTEMS SL | 4.800,00 |
| RECUPERACIONES INDUSTRIALES SALDISE SL | 4.800,00 |
| ATHERBEA PROMOCIÓN Y GESTIÓN, S.L. | 4.800,00 |
| PLASTIC REPAIR SYSTEM 2011 SL | 4.800,00 |
| INSTAL AIRE JAC SL | 4.800,00 |
| FITEUR NAVARRA SL | 3.800,00 |
| IÑAKI CAMBRA GEMBERO | 4.800,00 |
| TELEFONÍA Y TELECOMUNICACIONES DE NAVARRA SL | 3.800,00 |
| NAVARRA DEL TRATAMIENTO DEL AGUA SL | 4.800,00 |
| HOSPEDERÍA CIUDAD DE OLITE SL | 4.800,00 |
| CENTRO ESTUDIOS E INVESTIGACIÓN CIENCIAS DOMESTICAS SL | 3.076,80 |
| Mª SAGRARIO PAJARES AZPIROZ | 4.800,00 |
| VIAJES AURA SL | 3.600,00 |
| SOLUCIONES TÉCNICAS INTEGRALES NORLAND SL | 4.800,00 |
| GAPI MANTENIMIENTO, S.L. | 4.800,00 |
| OSES RFID, S.L. | 4.800,00 |
| BENTA DE URRITZA RESTAURANTE, S.L. | 126,57 |
| TECNOALIMENTACION HELA, S.L. | 3.800,00 |
| MARÍA JOSÉ BERRADE SENOSIAIN | 3.800,00 |
| DIASAVET SL | 4.800,00 |
| PASTELERÍA ARME SL | 4.800,00 |
| BERDIN SERVICIOS ALIMENTARIOS SL | 4.800,00 |
| SOCIEDAD LOGÍSTICA ALIMENTARIA NAVARRA SL | 4.800,00 |
| LAM GESTIÓN 2010 SL | 4.800,00 |
| ELECTRIFICACIONES SEYMAR SL | 4.800,00 |
| URDANOZ ZABALZA AGENCIA DE SEGUROS EXCLUSIVA S.L.I. | 4.800,00 |
| COMERCIAL ARRE MOTOR SA | 3.800,00 |
| YOLANDA CALVERA AYANZ | 4.800,00 |
| IÑIGO SAN MIGUEL IRAGUI | 4.800,00 |
| LIMUTAXI SL | 4.800,00 |
| CONSERVAS ALMANAQUE, S.L. | 4.800,00 |
| EVARISTO RUIZ, S.L. | 4.800,00 |
| MARÍA JESÚS GABARI OLLETA | 2.400,00 |
| TAHOMA 10, S.L. | 4.800,00 |
| TAHOMA 10, S.L. | 3.800,00 |
| LA FERTILIDAD DE LA TIERRA EDICIONES, S.L. | 4.036,80 |
| CENTRO ODONTOLOGICO BOCAS SANAS, S.L.U. | 3.800,00 |
| JOYERIA OPTICA LOZANO,S.L. | 4.800,00 |
| PESCAIRUÑA, S.L. | 4.200,00 |
| NALOMAL SERVIHOSTEL, S.L. | 4.800,00 |
| MANUEL PELEATO SÁNCHEZ | 2.400,00 |
| LUIS MARÍA MUJIKA ARANA | 3.800,00 |
| LUIS MARÍA MUJIKA ARANA | 92,06 |
| FOTOS JOSÉ MIGUEL MAZO,S.L. | 2.644,80 |
| BURPINTXOTE, S.L.L | 4.800,00 |
| FRANCISCA MARTE DOMINGUEZ | 3.800,00 |
| ÁNGEL JOSÉ PÉREZ BUENO | 2.400,00 |
| FALCES AUTOBUSES SÁNCHEZ, S.L. | 4.800,00 |
| CEGRAMEL BITOKIA, S.L. | 4.800,00 |
| DANIEL FERNANDEZ MARTÍNEZ | 2.400,00 |
| CASTILLEJO CELIGÜETA MAITE | 2.400,00 |
| RESIDENCIA SAN MIGUEL DE FUNES | 4.800,00 |

| Entitate eskatzailea | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|
| TELLECHEA GONZÁLEZ ANTONIO | 4.800,00 |
| FUNDACION DON MIGUEL EZA-RESIDENCIA NUESTRA SRA. DE GRACIA | 3.800,00 |
| SANTA ANA BAZTAFER, S.L. | 3.500,00 |
| SAYA HOSTELERÍA, S.L. | 2.640,00 |
| ARRASTIO CASANELLAS, CRISTINA | 4.800,00 |
| D.R.S. CINTRUÉNIGO, S.L. | 4.800,00 |
| SAGASPER TALLERES, S.L. | 3.800,00 |
| OTAPOR, S.L. | 4.800,00 |
| INTERIORES COZAR, S.L. | 4.800,00 |
| JUAN FRANCISCO BARQUERO SANTAMARÍA | 3.800,00 |
| ALFREDO EZPELETA BUSTO | 2.400,00 |
| ASOCIACIÓN RETINA NAVARRA | 4.800,00 |
| EUROPA CASTEJOÓN XXI, S.L. | 2.880,00 |
| AMARA OSDAJUAN SL | 3.800,00 |
| LA HORMIGA ATÓMICA LIBURUAK | 3.360,00 |
| CAFETERÍA RESTAURANTE DURBAN SL | 4.800,00 |
| CAFETERÍA RESTAURANTE DURBAN SL | 4.800,00 |
| CAFETERÍA RESTAURANTE DURBAN SL | 3.800,00 |
| CASELLAS BRAVO, MARTA | 3.120,00 |
| AMARA OSDAJUAN, S.L. | 3.800,00 |
| AMARA OSDAJUAN, S.L. | 3.800,00 |
| BENTA DE URRITZA RESTAURANTE, S.L. | 4.800,00 |
| TEKASHY ESTILISTAS, S.L. | 4.800,00 |
| IMPRENTA AYESA, S.L. | 4.800,00 |
| DALMASES BELSO DIDAC MARC | 4.800,00 |
| LIDERPA OFICINAS, S.L.L. | 4.800,00 |
| CLÍNICA DENTAL TXANTREA, S.L. | 4.800,00 |
| M.ELENA SANZ GUILLÉN "LAVANDA" | 4.800,00 |
| S.A.T. LACTURALE Nº 685 NA | 4.800,00 |
| JOSÉ ANDRÉS PÉREZ FONSECA | 3.800,00 |
| ÁNGEL CABEZÓN SAN JUAN | 3.500,00 |
| EQUIPAMIENTOS GANADEROS INDUSTRIALES, S.L. | 3.800,00 |
| VILLA MCLUHAN COMUNICACIÓN, S.L. | 4.800,00 |
| MARAN DE SENSACIONES, S.L. | 4.800,00 |
| ROBERTO ANDRÉS ARNEDO DUQUE | 3.800,00 |
| JESÚS ESCUDERO AYUSO | 4.800,00 |
| AMESKERIAZ BIZI, S.L. | 3.800,00 |
| TELEFONÍA Y TELECOMUNICACIONES DE NAVARRA, S.L. | 4.800,00 |
| METRO INMOBILIARIA 2010, S.L. | 4.800,00 |
| GRUPO EMPRESARIAL DE EFICIENCIA ENERGÉTICA, S.L. | 4.800,00 |
| RAKI OBRADOR, S.L. | 4.800,00 |
| TALLERES ALZUETA, S.L. | 4.800,00 |
| VINÍCOLA CORELLANA, S.A. | 4.800,00 |
| KRUTXA, S.L. | 2.400,00 |
| INDUSTRIAS GRÁFICAS CASTUERA, S.A. | 4.800,00 |
| HERMANOS PÉREZ DE PRADO Y BONA, S.L. | 4.800,00 |
| J.L. BARBARIN DECORACIONES, S.L. | 3.500,00 |
| J.L. BARBARIN DECORACIONES, S.L. | 3.500,00 |
| DÍAZ MUGUIA, BEGOÑA | 4.800,00 |
| FRUTAS TXIKI IRUÑA, S.L. | 4.800,00 |
| SAT Nº 562 FRUTAS Y VERDURAS CASTEL-RUIZ | 3.800,00 |
| JESÚS MARÍA ADOT ENCAJE | 3.500,00 |
| HERME PELUQUEROS, S.L. | 2.560,00 |
| EKISER GRUPO EMPRESARIAL SL | 3.600,00 |
| ZUBEZTIA, S.L. | 4.800,00 |
| ZUBEZTIA, S.L. | 2.400,00 |
| CARGO SERVICES PAMPLONA, S.A. | 4.800,00 |

| Entitate eskatzailea | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|
| CONSTRUCCIONES VERTICAL-MONREAL, S.L. | 4.800,00 |
| DAPP PUBLICACIONES JURÍDICAS, S.L. | 3.600,00 |
| LAURA PATRICIA BOLIVAR DURAN | 2.400,00 |
| TALLERES GURUCHARRI SL | 2.400,00 |
| ASESORÍA AGUIRRE ARNAIZ, S.L. | 4.800,00 |
| ELECTROTÉCNICA NAVARRA, S.L. | 3.500,00 |
| CENTRO DE LIMPIEZA MILKINIENTOS, S.L. | 2.400,00 |
| SILVIA SALSAMENDI SAEZ | 3.120,00 |
| MAVER ASESORAMIENTO EMPRESARIAL,S.L. | 2.400,00 |
| FRANCISCO JOSÉ PÉREZ ROMERO | 4.800,00 |
| BONOPARK, S.L.I. | 4.800,00 |
| M.LUISA SUESCUN REDÍN | 3.500,00 |
| IRAGO ELECTRICIDAD S.L.L. | 4.800,00 |
| MARÍA JOSEFA GARÍSOAIN BASARTE | 4.800,00 |
| TRANSLUZAIDE S.L. | 4.800,00 |
| SOLANO LOGÍSTICA FRIGORÍFICA SL | 4.800,00 |
| IRULAN AUTOMATISMOS SLL | 4.800,00 |
| PAWOK, S.L. | 4.800,00 |
| TORIBIO GONZÁLEZ, FABIÁN ENRIQUE | 4.800,00 |
| HOSTELERÍA FUNES, S.A. | 4.800,00 |
| TRANSFORMADOS RUIZ,S.L.U | 4.800,00 |
| ÁNGEL CAMINOS ASÍN | 2.760,00 |
| CLAUDIO LÓPEZ JIMÉNEZ | 4.800,00 |
| MIGUEL JOSÉ LEACHE RESANO | 4.800,00 |
| TALLERES FONTA, S.L. | 3.600,00 |
| MUDANZAS PELICANO, S.L. | 4.800,00 |
| DYAKONYUK STELLA Y ZHURAVEL VASYL | 2.400,00 |
| DYAKONYUK STELLA Y ZHURAVEL VASYL | 3.422,41 |
| PALMATRANS SIGLO XXI SL | 4.800,00 |
| IKER PALACIOS ANDUEZA | 4.800,00 |
| METÁLICAS BERRIOPLANO SL | 2.400,00 |
| JESÚS SEQUEROS SAZATORNIL | 3.500,00 |
| MIKI-BAR SL | 4.800,00 |
| GARIBELZU SL | 3.600,00 |
| DUFUR, M.R. PASTOR, J.M. URUÑUELA, J.J. (ASESORIA ZUREKIN) | 4.800,00 |
| ARBIPAK SOLUCIONES INTEGRALES SL | 4.800,00 |
| URDICIAIN COMERCIAL DE ALIMENTACIÓN SAL | 3.000,00 |
| ALS PAMPLONA 2002 CORREDURÍA DE SEGUROS | 3.800,00 |
| AURELIO MARTÍNEZ Y ALEJANDRO ZARATIEGUI, S.L. | 4.800,00 |
| MARÍA ESTHER GARCÍA ORTA | 3.000,00 |
| ALVAREZ ARIZA MD Y MARTÍNEZ MAGAÑA R | 4.800,00 |
| COAIRJEM, S.L. | 4.800,00 |
| JOSÉ JULIO GIL LERGA | 4.800,00 |
| ASIÁIN FLAMARIQUE JM Y GARCÍA BELMONTE E | 4.800,00 |
| JOSÉ MARÍA ARISTEGUI BERAZA | 4.800,00 |
| ALFONSO GÓMEZ-PINEDA GOIZUETA | 4.800,00 |
| GRETEL EVELINA MANZANELLI | 2.400,00 |
| ALCIRA RABANAL GONZÁLEZ | 2.400,00 |
| HELENA PELLEJEROS MINDEGUIA | 4.800,00 |
| DOBLASOUND SL | 3.500,00 |
| DOBLASOUND SL | 3.800,00 |
| IREKI LEIHOAK SL | 4.800,00 |
| GURPEA ELECTRICIDAD INDUSTRIAL SL | 4.800,00 |
| GAINZA MOTOR SL | 4.800,00 |
| JOSU TAMAYO ORBEGOZO | 2.400,00 |
| FÉLIX JAVIER IRIBARREN BARRENECHEA | 3.500,00 |
| TECNOLOGÍA INDUSTRIAL DEL RECICLAJE, I.B, SL | 4.800,00 |

| Entitate eskatzailea | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|
| MIRAMON Y AGUADO SL | 3.800,00 |
| ÓSCAR TOVÍAS RODRIGO | 3.800,00 |
| JOSÉ LUIS GOÑI GOYENAGA | 4.800,00 |
| ROBERTO ZAMORA SL | 4.800,00 |
| GRUPO TACTO XXI SLU | 3.800,00 |
| ZUBEZTIA SL | 3.000,00 |
| REMEDIOS CANO LÓPEZ | 4.800,00 |
| JAUCHA SL | 4.800,00 |
| BAR CAFETERÍA POLÍGONO SL | 2.400,00 |
| CENTRO DE ESTUDIOS E INVESTIGACIÓN DE CIENCIAS DOMÉSTICAS | 3.076,80 |
| ARIEL JUAN PABLO MULLER | 4.800,00 |
| PÉREZ SÁENZ MERCEDES, SADA LACALLE JOSÉ LUIS Y SADA PÉREZ MARÍA | 4.800,00 |
| RUIZ ESCOBAR MANUEL Y PEDRO | 3.800,00 |
| ANKO SL | 4.800,00 |
| COMUNIDAD COPROPIETARIOS ZARAGOZA, 20-24 | 4.800,00 |
| CRISTINA ULLATE HERNANDEZ | 2.400,00 |
| ESTIBALIZ SARALEGUI EGUIZABAL | 3.000,00 |
| BIONANOPLUS,S.L. | 3.800,00 |
| PIENSOS SAN CRISTÓBAL, S.A. | 4.800,00 |
| EDERGAÑAS IRUÑA,S.L. | 3.800,00 |
| JOSÉ MARÍA OYÓN ADELARRE | 3.500,00 |
| KINES IRUÑA,S.L. | 3.600,00 |
| ISTAL AIRE JAC, S.L. | 3.500,00 |
| ÁNGEL CABEZÓN SAN JUAN | 3.800,00 |
| MARÍA LOURDES RUBIO PLANILLO | 3.800,00 |
| BERTOL DÍAZ JUAN ANTONIO | 4.800,00 |
| GARAIRGORTA DE DIOS Y OTRA,S.CV. | 4.800,00 |
| JUGUETERÍA BAMBOLA, S.L. | 3.800,00 |
| CONSERVAS ALMANAQUE, S.L. | 2.400,00 |
| CONSERVAS ALMANAQUE,S.L. | 2.400,00 |
| MARÍA MAR GOYACHE SAINZ DE VICUÑA | 4.440,00 |
| ASFALTOS DEL EBRO, S.L. | 3.500,00 |
| HOTEL VILLAMARCILLA, S.L. | 2.400,00 |

**DIRU-LAGUNTZAK, GUZTIRA** **1.498.996,77**

II. ERANSKINA. 25 LANGILE BAINO GUTXIAGOKO ENPRESAK KONTRATATZEAGATIK 2012an UKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK BEHAR ADINAKO KREDITURIK EZ EGOTEAGATIK

| ENTITATE ESKATZAILEA | Eskaeraren egoera | Espediente zk. | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| INDUSTRIAS SANZ, S.L. | DE | 0465 | 4.800,00 |
| INDUSTRIAS SANZ, S.L. | DE | 0466 | 4.800,00 |
| ATIA SERVICIOS LOGISTICOS, S.L. | DE | 0467 | 3.800,00 |
| TRANSPORTES INTERPIRINEOS,S.A. | DE | 0468 | 4.800,00 |
| TRANSPORTES INTERPIRINEOS,S.A. | DE | 0469 | 4.800,00 |
| TALLERES OSTONDO | DE | 0470 | 2.400,00 |
| TEKASHY ESTILISTAS, S.L. | DE | 0471 | 4.800,00 |
| TEKASHY ESTILISTAS,S .L. | DE | 0472 | 4.800,00 |
| BONOPARK,S.L. | DE | 0473 | 4.800,00 |
| MARTÍNEZ IÑIGO,S.A. | DE | 0474 | 4.800,00 |
| HUTIPRE | DE | 0475 | 4.800,00 |
| IPARREA ITURRALDE SINFORIANA | DE | 0476 | 4.800,00 |
| URKIENEA GESTION, S.L. | DE | 0477 | 3.000,00 |
| ENGINEEA REMOTE TECHNOLOGIES, S.L. | DE | 0478 | 3.800,00 |
| BLANCA HUARTE LARUMBE | DE | 0479 | 2.880,00 |
| VENTA IZARRA, S.A. | DE | 0480 | 4.800,00 |
| KAIZEN AUTOMATIZACIÓN, S.L. | DE | 0481 | 3.800,00 |
| RENADI,SL. | DE | 0482 | 3.500,00 |
| VACUNO DE NAVARRA, S.L. | DE | 0483 | 4.800,00 |
| TACIAQUE, S.L. | DE | 0484 | 4.800,00 |
| HAIJIAN, S.L. | DE | 0486 | 4.800,00 |
| LIMPIEZAS MONTI, S.L. | DE | 0488 | 3.600,00 |
| MERCADAL 25,SL. | DE | 0489 | 4.800,00 |
| OTAZU ARDANAZ UXUA | DE | 0490 | 2.400,00 |
| BORESBAR,S.L. | DE | 0491 | 4.800,00 |
| BORESBAR, S.L. | DE | 0492 | 4.800,00 |
| CUPAGARR, S.L.L. | DE | 0493 | 3.800,00 |
| DESCIEGUES Y LIMPIEZAS NAVARRA, S.L. | DE | 0494 | 4.800,00 |
| ESTAMPACIONES ARSAN, S.L. | DE | 0495 | 4.800,00 |
| ASOCIACIÓN IKARI ARI | DE | 0496 | 2.400,00 |
| ASOCIACIÓN IKARI ARI | DE | 0497 | 2.400,00 |
| M ASUNCIÓN ASTIZ LARRAYA | DE | 0498 | 4.800,00 |
| GARNICA GARCES, HECTOR | DE | 0499 | 4.800,00 |
| MERCEDES MARTÍNEZ AGUINAGA | DE | 0500 | 4.800,00 |
| LÓPEZ CASTILLEJO, Mª LUISA | DE | 0501 | 4.800,00 |
| S.I. CHAPKANOV ILKO TODOROV, Y OTROS | DE | 0502 | 3.500,00 |
| NAVAR VIP, S.L.L. | DE | 0503 | 4.800,00 |
| TEKASHY ESTILISTAS, S.L. | DE | 0504 | 4.800,00 |
| ALBERTO SERV. COMER.2009, S.L.U | DE | 0505 | 4.800,00 |
| TRANSFORMADOS METÁLICOS RICARTE CASAREJOS, S.L. | DE | 0506 | 4.800,00 |
| SANTRUK GESTIÓN, S.L. | DE | 0507 | 2.400,00 |
| TALLERES MECÁNICOS ELKAR, S.A. | DE | 0508 | 4.800,00 |

| ENTITATE ESKATZAILEA | Eskaeraren egoera | Espediente zk. | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| AUTOMOVILES MANOLO, S.L. | DE | 0510 | 3.800,00 |
| PARROQUIA SAN LORENZO | DE | 0511 | 4.800,00 |
| RUMA DISTRIBUCIONES NAVARRA, S.L. | DE | 0512 | 4.800,00 |
| TEKASHY ESTILISTAS, .SL. | DE | 0513 | 4.800,00 |
| ROBERTO ANTÓN AGUIRRE | DE | 0514 | 3.800,00 |
| VINÍCOLA DE CARCAR, S.L. | DE | 0515 | 4.800,00 |
| BORJA HORTELANO BERMEJO | DE | 0516 | 4.800,00 |
| BORJA HORTELANO BERMEJO | DE | 0517 | 4.800,00 |
| CRISTINA ARNEDO DUQUE | DE | 0518 | 2.400,00 |
| CONSERVAS LA BLANCA, S.L. | DE | 0519 | 4.800,00 |
| FORO EUROPEO DE FORMACIÓN EMPRESARIAL, S.L. | DE | 0520 | 4.800,00 |
| ETXE HOLZ, .SL.L. | DE | 0521 | 4.800,00 |
| MORTE GOÑI BEATRIZ | DE | 0522 | 4.800,00 |
| GARIBELZU, .SL. | DE | 0523 | 3.600,00 |
| INTASA SAN ADRIAN S.L. | DE | 0524 | 4.800,00 |
| NEUMATICOS TAFALLA S.L. | DE | 0525 | 3.500,00 |
| AUTOMECÁNICA ERETA S.L. | DE | 0526 | 3.800,00 |
| MARÍA LUISA REY DORREGO | DE | 0527 | 2.526,24 |
| MARÍA LUISA REY DORREGO | DE | 0528 | 2.526,24 |
| OSESANSA, S.L. | DE | 0529 | 4.800,00 |
| FLORISTERIA SOFORA S.L. | DE | 0530 | 4.800,00 |
| FERRETERIA EL ARCA DE NOE S.L. | DE | 0531 | 4.800,00 |
| CENTRO ODONTOLOGICO BOCAS SANAS S.L.U. | DE | 0532 | 4.800,00 |
| MARTA PÉREZ COLLADO | DE | 0533 | 4.800,00 |
| DENOR CONTROL DE PLAGAS SL | DE | 0534 | 3.000,00 |
| CHECKFARMA GESTION FARMACEUTICA, S.L. | DE | 0535 | 3.800,00 |
| SAKANA CATERING,S.L. | DE | 0536 | 3.800,00 |
| AUTOMOCIÓN PÉREZ, S.C. | DE | 0537 | 4.800,00 |
| ZAPATERIA 56 SL | DE | 0538 | 3.800,00 |
| DIANA CAROLINA CEVALLOS ALVAREZ | DE | 0539 | 3.120,00 |
| ARPANA FORMACIÓN FORESTAL, S.L. | DE | 0540 | 4.800,00 |
| MONTALBIZU, S.L. | DE | 0541 | 2.400,00 |
| HOSTAL ARITZALKO, S.L. | DE | 0542 | 2.400,00 |
| JESÚS MARÍA FERNANDEZ ERASO | DE | 0543 | 4.800,00 |
| AMARA OSDAJUAN S.L. | DE | 0544 | 3.800,00 |
| IOSEBA BERRESKURATZE METALIKOAK, S.L.U. | DE | 0545 | 4.800,00 |
| LABAZIDAGAP S.L. | DE | 0546 | 4.800,00 |
| S.L. BARCINA PRADOS, S.REGUERA CASTRO, F. | DE | 0547 | 4.800,00 |
| S.I.BARCINA PRADOS, S. REGUERA CASTRO, F. | DE | 0548 | 3.600,00 |
| GRUPO DISTRIBUIDOR MERKOR S.L.L. | DE | 0550 | 4.800,00 |
| JESÚS NAVAS NAVAS | DE | 0551 | 4.800,00 |
| PROGINSA | DE | 0552 | 3.500,00 |
| CONSTRUCCIONES LANTARI, S.L. | DE | 0553 | 4.800,00 |
| SOHOINI, S.L.P. | DE | 0554 | 4.800,00 |
| TINTORERÍAS NAVARRAS, SL. | DE | 0555 | 4.800,00 |

| ENTITATE ESKATZAILEA | Eskaeraren egoera | Espediente zk. | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| GARMENDIA GOICOECHEA IDOIA Y QUINTON JEREMY CHRISTOPHER | DE | 0556 | 3.800,00 |
| GLOBAL SERPIS SL | DE | 0557 | 2.400,00 |
| CAROLINA HERNANDEZ BONETA | DE | 0558 | 3.800,00 |
| ELORZ SOCIEDAD COOPERTIVA DE TRANSPORTES | DE | 0559 | 4.800,00 |
| NAGUSIA DISTRIBUCION NAVARRA, S.L. | DE | 0560 | 4.800,00 |
| FRANCISCO JAVIER FERNANDEZ VAZQUEZ | DE | 0561 | 2.400,00 |
| TRANS-PROJEKT, S.L. | DE | 0562 | 4.800,00 |
| CORREDURÍA DE SEGUROS CORDOVELLA-GALAR, S.L. | DE | 0563 | 4.800,00 |
| ANA LERGA MURO | DE | 0564 | 2.880,00 |
| SOCIEDAD DEPORTIVA CULTURAL ECHAVACOIZ | DE | 0565 | 4.800,00 |
| COPROPIETARIOS 3ª AGRUPACIÓN ORVINA, FASE 704 | DE | 0566 | 3.500,00 |
| COOPERATIVAS DE VIVIENDAS EL SALVADOR | DE | 0567 | 4.800,00 |
| PERBAY S.A. | DE | 0568 | 4.800,00 |
| GESCRAP NAVARRA,S.L. | DE | 0569 | 4.800,00 |
| GARRO AINZUA, GUSTAVO | DE | 0570 | 4.800,00 |
| TALLERES GOLDBEDI, S.L. | DE | 0571 | 3.800,00 |
| ARUÑARTE SL | DE | 0572 | 3.600,00 |
| APARICIO PAVIA ENRIQUE Y ARANGUREN BRAVO J.J | DE | 0573 | 3.500,00 |
| IBAI PÉREZ DE PIPAON RODRIGUEZ | DE | 0574 | 2.400,00 |
| CONSULTORIA DISCAPACIDAD, S.L. | DE | 0575 | 1.500,00 |
| MUSICAL TOMAS, S.L. | DE | 0576 | 3.500,00 |
| WEHL&PARTNER IBERICA RAPID PROTOTYPING S.L. | DE | 0577 | 4.800,00 |
| WEHL&PARTNER IBERICA RAPID PROTOTYPING S.L. | DE | 0578 | 4.800,00 |
| CARNICERIA ARTESANA JOSÉ Y DANI SL | DE | 0579 | 4.800,00 |
| LEE LEE DONG HWAN | DE | 0580 | 3.800,00 |
| PROCERVE 17, SL | DE | 0581 | 4.041,60 |
| SAN MARTIN OSES CAROLINA | DE | 0582 | 3.800,00 |
| MARGAR NEUMATICOS, S.L. | DE | 0583 | 4.800,00 |
| DISPINTEC, S.L. | DE | 0584 | 3.600,00 |
| LCL ESTILO CAFÉ, S.L. | DE | 0585 | 4.800,00 |
| VALDERÁN CONSTRUCCIÓN, S.L. | DE | 0586 | 4.800,00 |
| ANA ISABEL MONEO DÍAZ | DE | 0587 | 4.800,00 |
| SERVICIOS INTEGRALES PLAZAOLA, S.L. | DE | 0588 | 2.400,00 |
| MIGUEL ÁNGEL ORRIO SOTIL | DE | 0589 | 4.800,00 |
| CAFÉ NIZA 2005, S.L. | DE | 0590 | 4.800,00 |
| LABAZIDAGAP S.L. | DE | 0591 | 4.800,00 |
| LABAZIDAGAP S.L. | DE | 0592 | 4.800,00 |
| LABAZIDAGAP S.L. | DE | 0593 | 4.800,00 |
| LABAZIDAGAP, S.L. | DE | 0594 | 4.800,00 |
| BHERZI S.A. | DE | 0595 | 3.200,00 |
| CINDUGRANIT, S.L. | DE | 0596 | 4.800,00 |
| DOBLASOUND, S.L. | DE | 0597 | 3.800,00 |
| DOBLASOUND, S.L. | DE | 0598 | 3.800,00 |
| JOSMON 2010 SL | DE | 0599 | 4.800,00 |

| ENTITATE ESKATZAILEA | Eskaeraren egoera | Espediente zk. | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| MARÍA LURDES DE MACEDO BARROS | DE | 0600 | 3.800,00 |
| ABRAHAN RESTAURACIÓN SL | DE | 0601 | 4.800,00 |
| PARDO PÉREZ RAMON Y SEVILLANO NAVARRO IÑIGO, S.I. | DE | 0602 | 2.400,00 |
| IMPRENTA AYESA, S.L. | DE | 0603 | 4.800,00 |
| BERDIN SERVICIOS ALIMENTARIOS S.L. | DE | 0604 | 4.800,00 |
| PALACETE JAUREGUIA, S.L. | DE | 0605 | 2.526,24 |
| CONSTRUCCIONES NADURAL, .SL. | DE | 0606 | 4.800,00 |
| SANTA ANA BAZTAFER SL | DE | 0607 | 4.800,00 |
| AZANZA ALBES MARÍA SOL Y FONSECA C. | DE | 0608 | 2.400,00 |
| EURO ALLOYS, S.L. | DE | 0609 | 4.800,00 |
| PROYECTOS Y SISTEMAS MEDIOAMBIENTALES, S.L. | DE | 0610 | 3.800,00 |
| MOLNAROVA RONAMA Y OROQUIETA LARUMBE Mª.B. | DE | 0611 | 2.457,60 |
| PRODUCTOS BURGOSANO, SLU | DE | 0612 | 4.800,00 |
| JOSÉ ÁNGEL MATEO MORENO | DE | 0613 | 4.800,00 |
| SUMINISTROS INDUSTRIALES BAZTAN, S.L. | DE | 0614 | 4.800,00 |
| JOSÉ MARÍA OYON ADELARPE | DE | 0615 | 3.800,00 |
| ALEJANDRA MARÍA ZAZPE EMBUN | DE | 0616 | 4.800,00 |
| MONTALBIZU, S.L. | DE | 0617 | 2.400,00 |
| DE RADA 18 2012, S.L.U. | DE | 0618 | 3.800,00 |
| AGUISI ETXEA S.L. | DE | 0619 | 3.800,00 |
| SAKANA CATERING, S.L. | DE | 0620 | 3.800,00 |
| DOMINGO GARCÍA ENRIQUE | DE | 0621 | 3.500,00 |
| LIBRERÍA GÓMEZ SA | DE | 0622 | 3.800,00 |
| ALBERTO MATEO VELAZQUEZ | DE | 0623 | 3.600,00 |
| ANDRÉS, BREGUA Y CUARTERO ELECTRONIC S.L. | DE | 0624 | 3.500,00 |
| FELIPE MARTÍNEZ GONZÁLEZ | DE | 0625 | 2.526,24 |
| GESTIÓN DE SERVICIOS NOÁIN SL | DE | 0626 | 2.526,24 |
| JOSÉ ANTONIO CORDOVA MARTÍNEZ | DE | 0627 | 3.800,00 |
| JOPIALSA 2011 SL | DE | 0628 | 4.800,00 |
| JOPIALSA 2011 SL | DE | 0629 | 3.800,00 |
| JOPIALSA 2011 SL | DE | 0630 | 3.800,00 |
| JOPIALSA 2011 SL | DE | 0631 | 3.360,00 |
| JOPIALSA 2011,S.L. | DE | 0632 | 3.360,00 |
| JOPIALSA 2011,S.L. | DE | 0633 | 3.800,00 |
| JOPIALSA 2011,S.L. | DE | 0634 | 3.800,00 |
| JOPIALSA 2011, S.L. | DE | 0635 | 4.800,00 |
| JOPIALSA 2011,S.L. | DE | 0636 | 3.800,00 |
| EMBALAJES BERA, S.L. | DE | 0637 | 4.800,00 |
| ZUBEZTIA,S.L. | DE | 0638 | 4.800,00 |
| CARNICERÍA ARTESANA JOSÉ Y DANI, S.L. | DE | 0639 | 3.500,00 |
| VANESA MENDEZ LÓPEZ | DE | 0640 | 2.524,80 |
| LEZKABAT,S.L. | DE | 0641 | 3.500,00 |
| JOSÉ ANTONIO ARRASATE SAN MIGUEL | DE | 0642 | 4.800,00 |
| GESTIÓN DE SERVICIOS NOÁIN,S.L. | DE | 0643 | 2.500,00 |
| JOFIGA NAVARRA,S.L. | DE | 0644 | 4.800,00 |

| ENTITATE ESKATZAILEA | Eskaeraren egoera | Espediente zk. | Diru-laguntzaren amaierako zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| TINTORERÍAS NAVARRAS,S.L. | DE | 0645 | 4.800,00 |
| PROMOCIONES RECREATIVAS NAVAEX,S.L. | DE | 0646 | 4.800,00 |
| CENDEGALAR,S.L. | DE | 0647 | 4.800,00 |
| MONTALBIZU,S.L. | DE | 0648 | 3.800,00 |
| MONTALBIZU,S.L. | DE | 0649 | 3.800,00 |
| BELÉN MONTERO MONTOYA | DE | 0650 | 3.600,00 |
| MARAN DE SENSACIONES,S.L. | DE | 0651 | 4.800,00 |
| CONSERVAS LA BLANCA,S.L. | DE | 0652 | 4.800,00 |
| GESCOM NAVARRA,S.L. | DE | 0653 | 4.800,00 |
| SERVICHAP 99,S.L. | DE | 0654 | 4.800,00 |
| ZUBEZTIA,S.L. | DE | 0655 | 3.600,00 |
| PASCUAL Y OLIVEIRA, S.L. | DE | 0656 | 4.800,00 |
| PASCUAL Y OLIVEIRA, S.L. | DE | 0657 | 4.800,00 |
| ROS MERY URIBE ORTIZ | DE | 0658 | 2.400,00 |
| ASTARRIAGA CORRES MI Y FRAILE MOR JM | DE | 0659 | 4.800,00 |
| ASTARRIAGA CORRES MI Y FRAILE MOR JM | DE | 0660 | 2.524,80 |
| BICOM NORTE,S.L. | DE | 0661 | 3.800,00 |
| JOPIALSA 2011,S.L. | DE | 0662 | 3.800,00 |
| RUBÉN MARTÍNEZ MOYA | DE | 0663 | 2.908,80 |
| HOSTELERA LA FACULTAD S.L. | DE | 0664 | 2.400,00 |
| ESTACION DE SERVICIOS AOIZ,S.L. | DE | 0665 | 4.800,00 |
| PARROQUIA SAN NICOLAS | DE | 0666 | 3.500,00 |
| PALMATRANS SIGLO XXI S.L. | DE | 0667 | 4.800,00 |
| ASOCIACIÓN PROVINCIAL DE AUTOESCUELAS | DE | 0668 | 3.600,00 |
| TARRE S.A. | DE | 0669 | 4.800,00 |
| HOSTELERÍA FUNES S.A. | DE | 0670 | 4.800,00 |
| ARDOIZ, S.L. "ASADOR MARTINTXO" | DE | 0671 | 4.800,00 |
| GRUPO TACTO XXI SLU | DE | 0672 | 4.800,00 |
| MADOS 2009, SL (BIMBA Y LOLA) | DE | 0673 | 4.800,00 |

# Galdera, generoko indarkeriako kasuen jarraipena egiteko eta haien arrisku-maila baloratzeko sistema informatikoaren kostuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, generoko indarkeriako kasuen jarraipena egiteko eta haien arrisku-maila baloratzeko sistema informatikoaren kostuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak generoko indarkeriako kasuen jarraipena egiteko eta haien arrisku-maila baloratzeko sistema informatikoaren kostuari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-13/PES-0009), hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

RIEVG (Nafarroako Genero Indarkeriaren Espedienteen Erregistro Integrala) eta VIOGEN (Genero Indarkeriaren Jarraipenerako Sistema Integrala) izeneko aplikazio informatikoak bide ezberdinetatik eta xede ezberdinetarako sortu ziren: RIEVG sistemaren kasuan, esku hartzeko, biktima bakoitzarekin esku hartzen duten erakundeak koordinatzeko eta genero indarkeriazko egoerak erregistratzeko tresna gisa sortu zen; genero indarkeriaren egoera eta bilakaera ezagutzea eta datu zehatzak biltzea ahalbidetzen du. VIOGEN sistema, berriz, polizia kidegoentzat arriskua baloratzeko eta genero indarkeriaren kasuen jarraipena egiteko tresna gisa planteatu zen.

Nafarroak, 2006. urtearen hasieran, genero indarkeriaren kasuen erregistro bakar eta orokorraren beharrari erantzunen zion informazio-kudeatzaile bat diseinatzeko prozesuari ekin zion. Etxeko tratu txarren edota sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntza osoa emateko Erakunde Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak beharrezkotzat jo zuen erasoen salaketekin zerikusia duten datuak biltzeko irizpideak bateratzea eta datu-base orokorra sortzea, indarkeriaren biktimei laguntzen dieten zerbitzu guztiek ustiatu beharrekoa (ez soilik polizia zerbitzuek).

2006. urtean bertan, abenduan, Ministroen Kontseiluak "Genero indarkeriaren aurkako presako 20 neurri" onetsi zituen, tartean indarkeria kasuen jarraipenerako aplikazio informatiko bat, Estatuko segurtasun indar eta kidego guztientzako datu-base berri bat, arriskua baloratzeko, babes eta urruntze neurriak dituzten emakume guztien inguruabarren jarraipen eraginkorragoa egiteko eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeek bizi duten egoeraren berri izateko etenik gabe, eraso gehiago eragozte aldera.

Bi tresnen arteko alde nagusia erakunde erabiltzaileetan zegoen: Nafarroako kasuan, RIEVG erregistro integralak ahalbidetuko zuen Erakunde Arteko Akordioan parte hartzen zuten erakunde guztiak koordinatzea (indarkeria sexistaren aurkako borrokan ari ziren eragile sozialak, judizialak eta poliziakoak), datu-bilketarako irizpideak bateratze aldera; eta Estatuko kasuan, VIOGENek segurtasun indar eta kidegoen jarduna koordinatzen du eta, bereziki, arriskua baloratzeko tresna da.

RIEVG - Nafarroako Genero Indarkeriaren Espedienteen Erregistro Integrala

Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Planeko (2006-2010) 9. arloa emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa da, eta arlo horretako ekintzetako bat da "Sarrera murriztuko aplikazio informatikoak prestatzea, profesionalei modua emateko biktimak zenbait arlotan (enplegua, etxebizitza, prestakuntza) jasaten duen egoera ezagutzeko, horrela doitasun handiagoz esku hartu ahal izateko".

2006. urtean, Nafarroako Emakumearen Institutuak, etxeko tratu txarren edota sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntza osoa emateko 2002ko akordioaren jarraipena egiteko ardura zuen erakundeak, beharrezkotzat jo zuen datu-base baten sorrera sustatzea, askotariko iturrietatik indarkeriari buruz biltzen ziren informazio guztiak kudeatu eta bateratzeko. Horretarako, otsailean Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion "Genero indarkeriari buruzko informazioaren kudeatzailea" sortzeko.

Nafarroako Genero Indarkeriaren Espedienteen Erregistro Integralari (RIEVG) dagokionez, iritzi zitzaion proiektu horren bitartez erantzuna ematen zitzaiela Jarduketa Protokoloan parte hartzen zuten erakunde guztien eskakizun funtzional eta

teknologikoei. Proiektu horren bidez hobekuntza lor zitekeen zerbitzuen kalitatean eta adierazpen soziodemografikoak nahiz eraginkortasun administratiboaren adierazleak lortzeko garaian. Erakunde publikoen arteko datu pertsonalen truketan, gainera, legezkotasuna bermatzen zen. Erregistro integral horrek biktimei laguntzeko zerbitzuen kalitatearen hobekuntza ekarri behar zuen, Erakunde Arteko Akordioan parte hartzen zuten Foru Komunitateko erakunde guztien arteko koordinazioa ahalbidetzen baitzuen.

2007. urtean azterlana egin zen Genero Indarkeriaren Espedienteen Erregistro Integrala (RIEGV) Nafarroan ezartzearen bideragarritasunari buruz.

2008an Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak lankidetza-akordioa egin zuten, hurrenez hurren Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez. Lehenbizikoak bere gain hartu zuen indarkeriari buruzko kudeatzailearen tresna informatikoa sortzeko ardura, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko eta jarraipena egiteko, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, berriz, aginte koadroa sortu behar zuen; horrek ahalbidetzen du, estatistikoki finkatutako informazioan oinarriturik, gure erkidegoan emakumeen kontrako genero indarkeriak duen eragina zehatz-mehatz ezagutzea eta berariazko politikak antolatzea.

RIEVG sistemako tresna informatikoaren garapenak kostu hau izan du orain arte:

Nafarroan genero indarkeriari buruzko espedienteen erregistro telematikoa ezartzearen bideragarritasuna aztertzea - Deloitte enpresa - Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ekarpena (15.000 €)

REIVGren tresna informatikoa garatzea. Deloitte enpresa. Justizia Zuzendaritza Nagusiaren ekarpena (202.000 €)

Nafarroako Genero Indarkeriaren Espedienteen Erregistro Integralaren aginte koadroa taxutu eta ezartzea - CyC Consultoría y Comunicaciones, S.L. enpresa - Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ekarpena (71.000 €)

VIOGEN – Genero Indarkeriaren Jarraipenerako Sistema Integrala

Genero indarkeriaren kasuen jarraipen sistema integrala izeneko aplikazioa 2007ko abuztuan jarri zuen abian Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak. Informazioa eta emakumezko biktimei laguntzeko baliabide operatiboak uztartzen dituen aplikazio informatikoa da.

Berariazko prestakuntza eta gaikuntza jasorik, hainbat eragile elkarlanean ari dira sisteman, Guardia Zibilekoak, Polizia Nazionalekoak, Espetxeetakoak, koordinazio unitateetakoak eta fiskaltzakoak, eta pixkanaka gehituko zaizkie Botere Judiziala, Mossos d' Esquadra kidegoa, Nafarroako Foruzaingoa eta udaltzaingoak.

Sistemaren bidez, polizia adituek zehazten dute zenbaterainoko arriskua duen biktimak eraso bat jasateko, lau maila bereizita: hur-hurrekoa, handia, ertaina eta txikia. Maila horiek aldian behin berrikusten dira, 72 orduren buruan (hur-hurreko arriskua), 7 egunen buruan (handia), 30 egunen buruan (ertaina) eta 60 egunen buruan (txikia), bai eta agintaritza judizialak edo fiskalak hala xedatzen duenean edota biktimari nahiz erasotzaileari eragiten dioten inguruabar berriak agertzen direnean ere.

Balorazio horiek polizia-atestatuari eransten zaizkio eta agintaritza judizialari eta fiskalari jakinarazten, eta kasu bakoitzaren tramitazioarekin zerikusia duen edozein inguruabarren gaineko abisuak sortzen dituzte; biktimaren arrisku maila areagotu dezaketen egoerei buruzko alertak eta biktimaren segurtasuna kolokan jar dezaketen hur-hurreko egoera larriei buruzko alarmak.

RIEVG sistema VIOGEN baino datu-kudeatzaile osoagoa da; horregatik, beste erregistro-sistema partzial batzuetatik datuak “husteko” sistema garatu beharra dago.

Gaur egun RIEVG eta VIOGEN ez dira sistema bateragarriak: VIOGENeko datuak RIEVGra hustu gabe daude, eta hustuketa eginen balitz ez litzateke bikoiztasunik sortuko, VIOGEN atal bat baizik ez litzatekeelako izanen RIEVGren baitan, hain zuzen ere polizia eremuari dagokion atala; kanpoan geldituko lirateke indarkeriaren biktimen alde ari diren beste gizarte-eragile batzuk, horiek RIEVGren barnean egon arren. Epaitegiek AVANTIUS sistemaren bidez biltzen dituzten datuen hustuketa ere egiteko dago.

RIEGVren egungo egoera.-

Gaur egun honako hauek dira RIEVG aplikazioa erabiltzen dutenak informazioa sartzeko:

Justiziako Gizarte Zerbitzuko langileak

Emakumeentzako Laguntza Zerbitzuko (ELZ) langileak

Gizarte Politiketako langileak, SIPSSrekiko integrazioa dela medio

SOS Nafarroako langileak, Positronekiko integrazioa dela medio

Etxebizitza arloko langileak, babes ofizialeko etxebizitza eskatzen duten biktimen izaera egiaztatzeko datu-basearekiko integrazioa dela medio

Gaurko bertsioan, egin gabe daude 1. fasean aurreikusitako integrazioak; honako hauek dira:

Justizia: Avantius informazio sistema

Foruzaingoa: Sitrade informazio sistema

Barne Arazoetako Ministerioa: Viogen – VdG informazio sistema

Gaur egun ez da aplikazioa hobetzeko egunerapenik egiten ari, ez direlako burutu lehenbiziko fasean aurreikusitako integrazio guztiak (Avantius, Sitrade eta Viogen sistemen integrazioa), eta hasi gabe dago 2007ko bideragarritasun azterlanean aurreikusitako II. fasea, hots, RIEGV sistema garatzea, osasun sistemako datuak (Larrialdiak eta Oinarrizko Laguntza) eta gizarte zerbitzuen sistemakoak Oinarrizko Laguntzan integratzeko.

Justiziako Gizarte Zerbitzua -RIEVGren titular gisa-, Gobernu Irekiaren Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua beste bide batzuk aztertzen eta ebaluatzen ari gara integratu gabeko sistemetako informazioa lortzeko, aginte koadrotik informazioa lortu ahal izan dadin; adibidez, integraziorik gabeko datu-hustuketa.

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak, datuak lortzea eta genero indarkeriari aurre egiteko nahiz esku hartzeko politikak taxutzea ahalbidetzen duen aginte koadroaren arduraduna den aldetik, jarraituko du sistemetako (VIOGEN, AVANTIUS) informazioaren hustuketa sustatzen; izan ere, gaur egun RIEVGtik ateratzen diren datuak ez dira oso erabilgarriak, ez direlako Nafarroan erregistratutako datu guztiak gordetzen, aipatutako integrazioen faltaz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

---

## Galdera, iragarri denez 27 milioi euro biltzeko bidea eman duen “erregularizazio prozesu bereziari” buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, iragarri denez 27 milioi euro biltzeko bidea eman duen “erregularizazio prozesu bereziari” buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera hau egin du, idatziz erantzuteko: “Kontseilariak iragarri du 27 milioi euro bildu direla erregularizazio bereziko prozesuaren bidez. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut: bermatuta al dagoen erregularizatutako dirutza hori ez dela legez kontrako edo ustelkeriari lotutako jardueretatik atera” (8-13/PES-0022). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Ekainaren 12ko 10/2012 Foru Legean ezarritako erregularizazio prozesua, 2013ko urtarrilaren 31n 315 sarrera-zenbakiarekin erregistratutako zure galdera idatziaren (8-13/PES-00018) erantzunean jada adierazi zen bezala, modu orokor eta iraunkorrean aurreikusirik dago, zergadunek beren zerga betebeharrak bete ditzaten, eta salbuespen bakarra du: aitorpenak epez kanpo aurkezteagatiko errekargu eta interesen kuantifikazioa.

Horrela egindako erregularizazioak zerga bakoitzari buruzko arau arrunten pean eta tributazio ezegokiagatik edota legez kontrako egintza penalengatik eska daitezkeen erantzukizun administratibo eta penalen pean daude.

Aitorpena aurkeztearekin batera preskripzioa etenda, orain Nafarroako Zerga Ogasuneko kudeaketa eta ikuskapen organoei dagokie tramitatutako autolikidazio guztietako zergapeko egitateak berrikustea, likidazio edo akten zenbatekoa zehaztea, hala behar denean, eta/edo zigor arloko jurisdikzioari erruduntasun-testigantza ematea, Ikuskapenari buruzko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

---

## Galdera, AHTaren finantzaketa dela-eta Estatuak eginiko likidazioei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, AHTaren finantzaketa dela-eta Estatuak eginiko likidazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**ERANTZUNA**

Bildu parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak AHTaren finantzaketa dela-eta Estatuak eginiko likidazioei buruz aurkeztutako informazio eskaerari dagokionez (PES-24/13), hau erantzun du Sustapeneko kontseilariak:

"Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Trenbide Azpiegituren Administratzailea (ADIF) entitate publikoaren arteko lankidetza hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linearen Nafarroako zatia egiteko" izeneko hitzarmena egin zen 2010eko apirilaren 9an (osorik argitaratu zen 2010eko 56. NAOn, maiatzaren 7koan, eta 2010eko 130. BOEn, maiatzaren 28koan). Hitzarmen horretako seigarren klausulak ("Finantzaketa") hitzez hitz hauxe dio:

"Seigarrena. Finantzaketa.

1. Estatuak Foru Komunitateari ordaindu beharko dizkio obren exekuzioaren gastuak eta, halaber, hitzarmen honetan eta kudeaketarako mandatuan ezarritakoari jarraikiz egiten dituen desjabetzeak eta zerbitzu-kontratuak. Ordainketa hori ADIFek eginen du, bere aurrekontuen kargura, segidako bost urtean, 2013tik 2017ra bitartean, hurrengo paragrafoan aipatzen diren zenbatekoak ordainduz urte bakoitzean, eta halaxe jasoko da entitate horren ustiapeneko eta kapitaleko aurrekontuetan, urtero, Estatuko Aurrekontu Orokorren barnean.

Nafarroako Foru Komunitateak 2011n ekin behar die plataformako obrei eta 2014an amaitu behar ditu. Hori horrela, Estatuak ADIFen bitartez obra horiek Foru Komunitateari ordaintzeko bere gain hartuko dituen gehieneko finantza-konpromisoak, hitzarmen honen eranskinean ageri den urtez urteko banaketaren arabera, hauexek dira: 10,00 milioi euro 2013an ordaintzeko; 25,65 milioi euro 2014an ordaintzeko; 30,00 milioi euro 2015ean ordaintzeko; 170,00 milioi euro 2016an ordaintzeko, eta 152,00 milioi euro 2017an ordaintzeko. 2017. urtean erregularizazioa eginen da eta ordaindu beharreko behin betiko diru kopurua finkatuko da, hitzarmen honen eta ADIFek egindako mandatuaren edo mandatuen arabera Foru Komunitateari ordaindu behar zaizkion gastuen guztizko zenbatekoa kontuan hartuta.

Dena den, urte bakoitzean, gehienez ere, burututako obraren kostu osoa ordainduko da, kontratazio organoak ordainduta eta hitzarmen honetako bigarren klausulan 2. puntuan aurreikusitako azpibatzorde teknikoak ontzat emanda dauden ziurtagirien arabera.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen plataformako obrak egiteko denbora berriz programatu behar izanez gero (horrek gainegitura obren programazio berriari ere eraginen lioke), ezarritako zenbatekoak egokitzen ahalko

dira, bosgarren klausularen 5. puntuan aipatzen den zenbateko osoa gainditu gabe. Beharrezkotzat jotzen bada 5. klausulan aipatutako urteko zenbatekoak gainditzea, aldez aurretik hitzarmen honen gehigarri bat tramitatu beharko da, jarraipen eta koordinaziorako azpibatzorde teknikoak proposaturik.

2. Ordainketak egiteko, 2013tik hasi eta urtez urte 2017ra arte, aurreko 1. idatz-zatian aurreikusi bezala, Estatuak, ADIFen bidez, hiru hilean behin ordainduko dio Nafarroako Foru Komunitateari obren zenbatekoa, aurreko 1. idatz-zatian adierazten den bezala zehaztuta".

Beraz, hitzarmen horretan ezarritakoaren arabera, 2012. urtean Estatuak ez lioke Nafarroako Foru Komunitateari inolako likidaziorik egin beharko.

Likidazio aurreikuspenak eskatu dituzu, egutegia eta 2013rako aurreikusitako zenbatekoak zehaztuta. Horri dagokionez, era berean hitzarmenean ezarritakoarekin bat, Estatuak ADIFen bitartez finantza-konpromisoa hartu du Nafarroako Foru Komunitateari gehienez ere 10 milioi euro ordaintzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

---

## Galdera, Tafallako hegoaldeko saihesbidea izenekoari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako hegoaldeko saihesbidea izenekoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

### ERANTZUNA

Bildu parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Tafallako hegoaldeko saihesbidea izenekoa dela-eta Nafarroako Gobernuak 2013rako eta 2014rako dituen jarduketa- eta gastu-aurreikuspenei buruz aurkeztutako informazio eskaerari dagokionez (PES-25/13), hau erantzun du Sustapeneko kontseilariak:

Tafallako saihesbidearen proiektuak bi fase ditu:

1.- Lehen fasearen proiektua jada jendaurrean jarri da eta behin betiko onets daiteke.

2.- Bigarren fasearen proiektua jendaurrean jarri da ukitutako ondasun eta eskubideen ondorioetarako, eta, alegazioak aztertu ondoren, zenbait aldaketa egiten ari zaizkio proiektuari, alegazioak aintzat harturik. Jendaurrean jarri zen konponbidearen aldean aldaketa horiek funtsezkotzat jotzen badira, proiektua berriro jarriko da jendaurrean.

2013. urte honetarako jarduketa-aurreikuspena, berriz, proiektuak behin betiko onestea da. Aurreikusitako gastuari dagokionez, aurtengo gastua proiektua egiteko laguntza teknikorako kontratuaren likidazioari dagokio, hortik 117.562,47 € geratzen baitira ordaintzeko. Ekitaldi honetan ez dago aurreikusita obrak egiteko baliabide ekonomikorik.

2014ko ekitaldirako aurreikuspenak, azken batean, ekitaldi horretako aurrekontuetan obra horien kontratazioari eta exekuzioari ekiteko jar daitezkeen baliabideen mende egonen dira.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

---

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950